

Aleazio ez-ferrikoak

Produktu siderurgikoek akats hauek dituzte:


- Dentsitate altua
- Konduktibitate elektriko baxua (beste material metalikoekin alderatuz)
- Korrosioarekiko eta oxidazioarekiko erresistentzia txikia (hau da, erraz erdoiltu egiten da)

Kobrea eta bere aleazioak

Kobrea biguna eta harikorra da. Korrosioaren aurka erresistentzia handia du.

Aleazio arruntena **letoa** da. Zinka kobrean disolbaturik dago aleazio honetan.

Brontzeak kobrearen aleazioak dira; berarekin batera eztainua, aluminio, silizio eta nikel dute. Korrosioaren aurka erresistentzia oso handia dute eta erabiltzen dira korrosio handiko inguruetan.



Aleazio ez-ferrikoak

Aluminioa eta bere aleazioak

Aluminioak dentsitate baxua du ($2,7 \text{ kg/dm}^3$; altzairuak baino askoz baxuago $- 7,9 \text{ kg/dm}^3 -$), eroale elektriko eta termiko ona da eta korrosioaren aurka erresistentzia aurkezten du.

Oso xaflakorra da eta xafla meheak egin daitezke aluminioarekin.

Aluminioaren aleazioak dentsitate baxuko beste metalekin osatzen da: magnesioa eta titanioa adibidez.



Aleazio ez-ferrikoak

Magnesioa eta bere aleazioak

Magnesioak dentsitate baxua du ($1,7 \text{ kg/dm}^3$) eta ezaugarri horri ateratzen zaio etekina.

Itsaso korrosioak erasotu egiten dute baina atmosferako korrosioarekiko erresistentea da.

Bere aleazioak lortzen dira aluminio, zink eta manganesoarekin elkartuz.

Hegazkinetan, armamentoan, kotxeko gurpiletan... erabiltzen dira.



Magnesioa



Aleazio ez-ferrikoak

Titanio eta bere aleazioak

Dentsitate baxua du ($4,5 \text{ kg/dm}^3$), erresistentea da eta harikorra.

Korrosioarekiko oso erresistentzia handia du. Industria aeroespazialean erabiltzen da.

